

BULGARIAKO RILA ETA PIRIN MENDIAK BALKANETAN ESKIATZEN

Balkanetako penintsularen ekialdean kokatutako herrialdea da Bulgaria. Bere erliebearen azalera gehienez ordeka zabalak eta muino apalak diren arren, baditu lau mendi multzo nabarmentzeko modukoak: Balkanetako mendilerroa ("Stara planina"), Rodope, Pirin eta Rila. Azken mendi multzo horretan dago Balkanetako penintsula osoko mendirik garaiena (Musala 2925 m). Bulgaria barneko aldean neguak hotzak dira eta mendietan prezipitazioak ugariak direnez, elurra lodi izaten da. Honegatik guztiagatik, herrialde honek mendiko eskirako aukera paregabeak eskaintzen ditu, batik bat bi mendi multzorik altuenetan, Rilan eta Pirinen.

Sarritan entzun izan dugu ezkontza batetik, beste ezkontza batzuk sortzen direla. Bada, mendizaleon artean ere halaxe gertatu ohi da, mendiko irteera batetik beste plan berri batzuen hazia ernetzen da maiz. Sei egunetan Chamonix-Zermatt mendi-eskiko ibilbide klasi-

koena osatu berri genuen, arras nekatuta, baina irribarrea ezin kabiturik aurpegiaren zabalera, lorpenaren pozez gainezka. Zermattetik abiapuntura itzultzeko, furgoneta-taxi batean sartu ginen gu hirurak sei nafarrekin batera, haiek ere pozik, berriketa bizian denok. Hala,

hietetako batek hurrengo urteko Aste Santuari begira Bulgaria aipatu zuen, bada, ideia printza txiki horixe nahikoa izan zen guretzat. Urtebete geroago, hementxe gaude Sofiako aireportuan. A zer nolako seinale ona, hiriaren gaineko Vitosha mendiak majo elurtuta.

Polezhanen ertzetik hegoaldera dauden mendiak ederresten



RILA MENDIAK

Mendi multzo hau herrialdearen hego-mendebaldean dago, hiriburutik kotxez ordubete pasatxo. Urrutitik ikusita, mendilerroa asko nabarmentzen ez diren gain borobil zapalek osatzen dute. Hurbilduz gero, ordea, eta bertan ibilita, glaziazioek landutako erliebe anitzagoa dauka: granitozko tontorrak, U itxurako haran sakonak eta zirku eta laku glaziar ugari. Esaterako, sonatuak dira Rilako zazpi lakuak. Bestalde, 2000 metrotik beherako azalera gehiena basoek hartzen dute, bioaniztasunaren gordelekuak. Ez da ahaztu behar gainera bertan dagoela Rilako monastegia, Bulgariako ospetsuena.

MUSALA 2925 M

Borovetsen gaude, Rilako mendien ipar magalean dagoen eski-estazioan, izei tantaien artean. Bulgariako zaharrena omen. Hala ere, itxura batean garai hobeak ezagututakoa. Bezperan eguraldi txarrak zapuztu zigun Balkanetako sabaira igotzeko asmoa. Gaur, ordea, egun ederra daukagu. Borovetsetik gailurra urrutitxo dagoelakoan, tranpa txikitxo bat egin dugu, eski-estazioaren gondolarekin mila metroko desnibela



Rilako monastegia

igo eta, bideari puska bat kenduta, Yastrebetz gainean gara, 2370 metroan. Aurreko egunean botatako elur-hautsezko pista errazetan jaitsi gara igoeraren abiapuntura (2150 m).


Urrutitik ikusita, mendilerroa asko nabarmentzen ez diren gain borobil zapalek osatzen dute

Foka-larruak ipinita, 10:30ean abiatu gara haranaren hondotik maldala leunetan gora, elurretan ezkatututako Bistrizta erreka kontrako noranzkoan, hegoalderantz. Parez pare daukagu Iretxek mendi dotorearen ipar aurpegi trianguluarra (2852 m). Ordu erdi inguru daramagunean, Musala aterpe erraldoiaren ondotik igaro gara (2390 m). Zer da hau! Handiagorik egiterik ez al zegoen? Karakashevo ezero lakua ezkerrean dugula, hego-mendebalderantz jo dugu aldapa handixeagoko sakonean gora, bizpahiru lakuko ordekararik iristeko. Hasiera-hasieratik ibilbide osoa 1,5-2 metroko burdinazko posteeekin balizatuta dago.

Berrito ere, gure helburua dakusagu, Musala. Ipar isurialdearen erdi-erdian badu ondo elurtutako kanala, tentagarria bai, baina gaur ezin izango dugu bada hortik jaitsi, atzoko elurtea medio, elur gehiegiz homituta dagoelakoan, beraz, arriskutsua. Gailurretik behera datorren mendizale bulgariar talde batekin

topo egin dugu, ingelesez edo elkarrizketa laburra eta aurrera. Eguerdian beste aterpe batera ailegatu gara (2715 m), parean dauka Ledezno ezero, "laku hormatua", izena eta izana bat datoz Balkanetako laku altuenean. Hemendik aurrera nola igo-jaitsi erabakitzen, jan-edanean eta prestatzen ordu erdi luze eman dugu eguzkitan. Dena dela, horrelako giroarekin presarik ez dago.

Musala mendiak, ipar isurialdearen erdi-erdian badu ondo elurtutako kanala, tentagarria oso



TESTU ETA ARGAZKIAK



Aitor Oiarbide Telleria
(Loiola, 1971)


Aita-amei esker bihurtu zen mendizale txiki-txikit. Donostiako Loiolako Ametzagaina eta Gazteiz mendi taldeetako kidea da. Euskal Herriko mendi eta basoetan ikaragarri gozatzen du. Era berean, Pirinioetara joan izan da, eta tarteka-marteka Alpeetara. Udan mendiko bizikleta eta alpinismoa ditu gogoko, negu-udaberrietan, berriz, mendiko eskian ibiltzeko irrikak izaten da. Azken bolada honetan gainera, Aritz eta Beñat bere bi semeekin eta Ixonerekin mendi buelta xumean plazerra aurkitu du.

Pixka bat goraxeago eskiak utzi eta kranpoiak ipinita ekin diogu azken aldapari: Musalaren ipar-ekialdeko ertz samurra. Sarri-sarri jarritako posteez ez dute galbiderako inolako arriskurik uzten. Ordu bata pasatxo gailurrean gaude. Gora Euskadil! Antena eta eraikinez josita dago gailur zapala, Mus Allah edo "Alaren mendia". Primerako eguraldiarekin ikuspegia sekulakoa da: hegoaldean Pirin mendiak, ipar-mendebaldean Sofia hiriburuaren gaineko Vitosha mendi-multzoa, mendebaldean Rilako Malyovitsa mendia eta ingurumariak, e.a. Argazki franko atera dugu, bat ikurriñarekin, jakina!

Jaisten hasi eta hogeit minutura eskiak berreskuratu ditugu. Ordubi eta erdi inguruan abiatu gara berriz. Bost minutura, igoeran begiz jotako kanal eder urratu gabea jaisteari ekin diogu. Elurra, malda... dena zoragarria! A zer nolako hiru "sinadura" utzi ditugun. Hemendik aurrera arras erraza da, haranaren hondotik dena iparralderantz. Lehendabizi Musala aterpearen ondotik igaro, geroago eski-estazioaren Musala pathway delako pistan bide luzea eginez, Borovetseraino. 1600 metroko desnibelego jaitsiera. Bertako garagardoarekin botiltzarra edo boteiloia egitea izan da gure ospatzeko modua.

MALYOVITSA 2729 M


Beli Iskar erreka haren haran luzeak, Rila mendi multzoa erdibitu egiten duela esan daiteke, labankada sakon baten moduan; bada, Rilako ekialdean Musala izanik mendirik nabarmenena, beste erdian, mendebaldeko mendietan Malyovitsa haitza da nagusi. Bulgariako alpinismoaren hastapenetan oso gogoko izan omen zuten.



Borovetsetik Malyovitsa eski-estazio bi-tarteko tartea arin samar egin dugu, bidean mendi elurto ezezagunak ikusiz. Zeruan goi hodei sare batzuk besterik ez, hortaz, ederki. Trasteak prestatu eta 09:50ean gogoz ekin diogu eski-estazio txikitxotik (1700 m). Berehala igaro gara Rilako parke nazionalaren zurzko atearen azpitik. Hasieratik parez pare daukagu Malyovitsaren ipar aldeko mailozarra. Iraupen-eskiko pistatik malda samurrean gorantz jarraitu dugu izeien artean. Igo ahala ordea, bakantzen doaz zuhaitzak.

Rilako monasterioa, Bulgaria inbaditu izan zuten garaietan, bulgariar hizkuntza eta kulturaren babeslekua izan zen

Ordubete behar izan dugu mendiaren izen bereko aterpera iristeko (1990 m). Eguraldi txarra mesfidatia dela eta, aterpean zain egon gara. Hala ere, 11:45en inguruan berriz ere



abiatu gara, geu behinik-behin saiatuko gara. Hegoalderantz jarraitu dugu, haranaren burura iristean, 2240 metro inguruan, noranzkoa Mrantz aldatu arte. Gaur ere burdinazko poste hori-beltzak daude bide normala balizatzeko. Ordeka batera iristean, Malyovitsa mendiaren ekialdeko malda malkarra ikusgai daukagu. Elenski ezera lakua (2466 m) bazterrean utzita, berriz ere Hrantz, aldapa gogorragoei ekin diegu lepora iristeko.

Ordu bietan lepotik hurbil dagoen Eleni Vrah (2654 m) mendiaren gailurrean gara.

Ikuspegi zoragarria: gure azpian Rilako monastegiaren harana, atzean Pirin mendiak, e.a. HMko haizea ordea, zakar dabil. Lepoko haize babesera jaitsi, foka larruak kendu eta zalantza izan dugu: "a" aukera, haize zakarra dela-eta, behera jotzea edo "b" aukera, gailurrera joatea. Duda-mudatan ibili ondoren, zirt edo zart egin eta eskerrak azkenean bigarren aukera hartu dugun. Kranpoiekin gailurre-rako azken ehunka metroak aldaparik gabe, horizontalean izan dira. 14:45etan gailurrean gara. 15:25etan eskiatzeko prest gara. A ze

gozatua! Ia ordubete behar izan dugu atzera kotxeraino iristeko.

PIRIN MENDIAK

Rila mendiak baino hegoalderako kokatuta daude, Grezia eta Ipar Mazedoniatik hurbil. Pirin izena eslaviar mitologiaren jainko nagusiari zor omen dio, "Perun", tximistaren eta trumoiaren jainkoa. Iparraldeko isurialdearen ikuspegia, itxura tenteko tontorrek osatzen dute, bi garaienak izanik batez ere nabar-

Izeien artean, aurrez aurre Malyovitsa mailotzarra




BULGARIA

mentzen direnak: Kutelo (2908 m) eta Vihren (2914 m), marmolezko bi piramide lerden. Azken honen iparraldeko labarren oinean, Europako glaziar txiki edo elurtegi hegoaldekoe-na dago (Snezhnika). Gainontzean, hirurogei mendik baino gehiagok daukate 2500 metro baino gehiagoko altuera. Bertan dago Bansko herria eta bere eski-estazioa, non nazioarteko eski proba ofizialak lehiatzen diren.

POLEZHAN 2851 M

Kotxez Banskotik Dobrinishtera, errepide nagusia utzi, herria zeharkatu eta gorantz jarraitu dugu basoen artean, harik eta eski estazio txatxar zaharkitu batera iritsi arte: Gotse Delchev (1480 m). Zerua lainotuta dago, ez dago argi. Hala ere, gure erabakia aurrera egitea izan da. Gaur ere igotzeko desnibelari puska bat kendu diogu batera nekerik gabe, teleaulkian ordu erdi batean. Ai ene! burgesten ari ote gara? 10:10ean teleskiak 2230 metroko altueran utzi gaitu, Bezbog aterpe handikotearen ondoan. Hotzik ez. Hodeiak saretzen ari dira eta hamar minutuan abian gara Hrantz zuzenean. Lehenengo lakuaren ezkerreko aldetik, eta gero aldapa etzanetan gora eginez, Bezbog mendiaren ekialdeko bizkarraren gainean gara. Parez pare daukagu gure gaurko helburua, Polezhan, estreinakoz begi bistan. Ekialdeko aurpegi erakargarria.

Mendebalderantz jiratu eta sastraken tainainako pinu txikien artean, Bezbog mendiaren egutera zeharkatzen aritu gara, pixkanaka igoz. Goizeko 11:20 dira lepo zabalera iritsi garenean (2565 m). Hemendik aurrera Polezhanen ekialdeko ertz luzea zeharkatu behar dugu. Hori bai, geu baino aurreraxego hamar bat eskiatzailez osatutako talde bat doa, eta gu haien arrastoan. Eguerdiko 12:05ean, 2851 metroko gailurrean, a ze poza, Polezhanen tontorrean gaude. Lehentxeago iritsi diren taldekoekin berriketan aritu gara. Asturiarrak dira. 360 graduko ikuspegia probestuz, talde horren gidari jator bulgariarrak, hurrengo egunetarako zenbait aukera azaldu dizkigu: lehenengoa, Kutelo (2908 m), eskie-



Rilako parke nazionalaren sarrera, atzean Malyiovitsa

kin egiteko onena, temperatura altu hauekin ordea, oso arrisksua. Bertan erortzen omen da Balkanetako penintsula osoko elur-jausirik handiena. Bigarren aukera, berriz, Vihren (2914 m), piramide lerden dotore askoa. Aurrekoaren antzera, agian arrisksu samar egongo da orain.

Pirin izena eslaviar mitologiaren Perun jainko nagusiari zor omen dio, tximistaren eta trumoiaren jainkoa

Beste aukera batzuk, gugandik gertu dauden bi mendi, Polezhandik iparralderantz ateratzen den lerroan: batetik, Malka Strazha (2802 m) ekialdetik arrisku txikikoa antza, eta bestea, Kaymakchal (2752 m), aurrekoa baino iparralderago. Gainontzean, askoz ere mendi gehiago ere ikusten dira, eder askoak. Gustura gauden arren, jaisten hasi beharko. 12:30ak pasatxo direnean, eskiak bizkarrean ipinita abiatu gara. Hiru ordu laurden eraman digu lepora iristeak. 70 metro igota, Bezbog mendiaren gainean gara (2645 m). Jaistean, mendi honen iparraldeko malda tentagarriaz gozatu dugu. Goizeko aterpearen ondorengo gara, eta eski-estazioaren pistetan behertan bakar-bakarrik joan. 14:50etan kotxean.

Iluntzean Banskoko taberna batean garagardo batzuk hartzen ari garela, hara! A zer bitxikeria mapan! Erreka eta ibaiei bulgariaraz "reka" esaten diete. Biharamunean, Vihreni ekiteko elur-jausien arriskua zegoenez, Banskoko eski estazioko pistetan gozatu ederra hartu dugu. Azken eguna osorik berriz, Sofia hiriburuaren bazterrak ikusten ibili gara, ordu-rako gure mendiko grina asetua.

RILAKO MONASTERIOA

Rilako mendien mendebaldeko haran sakon batean kokatua. X. mendean sortu zuten Ivan ermitauak eta bere jarraitzaileek. Bulgaria inba-

ditu izan zuten garaietan, bulgariar hizkuntza eta kulturaren babeslekua izan zen. Unescok Gizateriaren Ondare izendatu zuen 1983an.

BABA MARTA ETA MARTENITSAK

Malyovitsaren igoeran, zuhaitzen adarretako zintzilikario zuri-gorriek gure jakin-mina piztu zuten. Zer ote dira? Bada, batean eta bestean irakurrita, jakin genuen "Baba Marta" (euskaraz "Amona Martxoa") ohitura zela. Kondairak dio Baba Martak menperatzen duela eguraldia. Horregatik, negu gorri eta luzearen ondoren, bulgariarrek "martenitsak" egiten dituzte, Baba Marta lasaitzeko asmoz.

Martenitsa delakoak artilezko apaingarri zuri-gorriak dira, pultsera, erratz edo giza itxurakoak. Baba Marta egunean, martxoaren batean, senide eta lagunak martenitsak oparitzen dizkiote elkarri, horrekin batera, osasuna eta zoriona opa diote batak besteari. Lepoan, eskumuturrean edo paparrean eraman behar dira, alegia, soinean, harik eta, lehenengo zikoina edo kimuak atera zaizkion zuhaitza ikusi arte. Orduan, horrelako zuhaitz baten adarretik zintzilikatu behar da. Sofia hiriburuan ere, loratutako arbolen adar batzuk martenitsaz josita ikusi genituen. Gure artean bulgariar ohitura polit hau zabaltzea ez litzateke batere txarra izango.



Musalako gailurra

FITXA TEKNIKOA

PARTAIDEAK: Elena Ibabe, Jose Rodríguez eta Aitor Oiarbide.

KARTOGRAFIA:

- Rila mendietan Domino argitaletxearen Rila Mountains (Bulgaria) 1:50.000

- Pirin mendietan Domino argitaletxearen Pirin national park (Bulgaria) 1:50.000

LOTURAK:

Bulgariako mendien mapa on-line. BGMountains online map: <https://www.kade.si/>

Pirin mendietako tontorrik garaienak Vihren (2914 m) eta Kutelo (2908 m) lerdenak

